

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

292

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 27koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Ukrainaren inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragindako elikadura-kateko sektoreentzako ezohiko laguntzen deialdia egin zen 2023. urterako.

Ikusi dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VIII. kapituluaren babesean aurkeztutako laguntza-eskaerak. Agindu horren bidez, Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragiten dien elikadura-kateko sektoreentzako 2023ko ezohiko laguntzen deialdia egin zen. Horrez gain, eskabide horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa ere aztertu da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Batzorde hori deialdi-aginduaren 8. oinarria aplikatuta eratu eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2023ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena egiteko, Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduan ezarritako onargarritasun-irizpideak.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak ematea. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VIII. kapituluan jasota daude, eta eranskin horretan zehazten da zenbateko osoa emango zaien zuzeneko laguntza gisa. Zenbateko hori 1.519.022,00 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VIII. kapituluan jasotako pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak ukatzea, eta eranskin horretan laguntza ukatzeko arrazoia zehaztea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 27a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2024ko urtarrilaren 19a, ostirala

I. ERANSKINA

Abere erabilerarako abere elikadurako enpresentzako laguntzen programaren kargura emandako dirulaguntzak.

Espediente-zk.	Sozietate-izena	IFK/NAN	Laguntza (euro)
1	Ingaso Farm, S.L.	B01342401	36.572,70
2	Urrutia Goicoechea, S.A.	A01031582	56.130,00
3	Goierriko Nekazal Koperatiba Elk	F20023917	10.447,80
4	Hermanos Garcia de Andoin Sarachaga Sociedad Limitada.	B48086490	160.230,00
5	Landarbide Pentsuak, S.L.	B75145649	8.250,00
6	Miba, S. Coop.	F48039507	400.000,00
7	Diva Pentsuak, S.L.	B20090296	400.000,00
8	Ganaderos Unidos del Valle de Carranza, S.C.L.	F48056303	192.510,00
9	Goimar, S.L.	B48030548	253.321,50
10	Francisco Javier Regulez Laiseca	***6027**	1.560,00

2024ko urtarrilaren 19a, ostirala

II. ERANSKINA

Ukatutako eskabideak.

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Ukoaren arrazoia
1	00012-OAA2023-61	Urrestillako Ibai Eder Kanpo Koop.	F20026985	Ez du betetzen ordezkaritza paritarioa Administrazio Kontseiluan
2	00014-OAA2023-61	Piensos Usabiaga, S.L.	B75208173	Ez du betetzen pentsu-fabrikatzailea izateko baldintza
3	00016-OAA2023-61	Coop Agrícola Ganadera de Elorrio	F48024681	Ez du betetzen ordezkaritza paritarioa Administrazio Kontseiluan